

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

#### Foru Gobernu Kontseiluaren 618/2022 Erabakia, urriaren 18koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabezko gizarte berrikuntzako sarien deialdiari

Arabako Foru Aldundiaren Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak, zeina Diputatu Nagusiaren Sailari baitagokio eta hari atxikita baitago, gizarte berrikuntzako sarien deialdia egin du 2022ko ekitaldian Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean, honako hauek saritzeko: zerbitzu, produktu eta eredu berrien proiektuak eta ekimenak, gizartearen arazo bati erantzuna emango diotenak edo premia bat gaur egungo alternatibek baino modu eraginkorragoan edo efizienteagoan beteko dutenak, edo gizarte harreman berriak, sinergia berriak eta lankidetzaren eredu berriak sortuko dituztenak, gizartearen erronka handiei irtenbidea emateko beharrezkoak diren gizarte portaerak aldatzea sustatzeko.

Sari horien bidez, Diputatu Nagusiaren Sailak bi gauza egin nahi ditu: batetik, jendaurrean aitortu ekimen berritzaile horiek Arabako gizartearen ongizaterako egiten duten ekarpena eta, bestetik, katalizatzaile jardun, era horretako proiektuak abian jar daitezela sustatzeko.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Diputatu Nagusiak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2019 Erabakiaren bidez onetsi zen dirulaguntzen plan estrategikoaren eranskina, ebazpen honekin batera doan I. eranskinaren edukia haren barruan jasoz.

Bigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak 10.000,00 euroko zenbatekoa esleitu dezala Arabako Foru Aldundiaren 2022ko ekitaldirako gastuen aurrekontuaren 02402. G/920023/48100060 "Gizarte berrikuntzako sariak" partidaren kontura (zorpekin erreferentzia: 105.4156).

Hirugarrena. Onestea Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabezko gizarte berrikuntzako sarien deialdia.

Laugarrena. Onestea deialdia arautuko duten oinarriak, zeinak II. eranskinean baitaude.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Seigarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, edo, bestela, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena hartu duen organo berari, hilabeteko epean, bata nola bestea jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 18a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria*

**LEXURI UGARTE ARETXAGA**



## ANEXO I

**Foru sektore publikoaren 2020-2022 aldirako diru-laguntzen plan estrategikoa aldatzeko fitxa**  
**Ficha de modificación del Plan estratégico de subvenciones 2020-2022 del sector público foral**

Diru-laguntza lerroa/Línea subvencional:	Berrikuntza Sozialari Sariak/ Premios a la Innovación Social
Ardatz estrategikoa/ Eje estratégico	Giza garapena eta gizarte-kohesioa/ Desarrollo humano y cohesión social
Saila/ Departamento:	Diputatu Nagusia / Diputado General
Aurrekontu partida/ Partida presupuestaria:	“02402.G/920023/48100060 Berrikuntza Soziala Sariak/Premios Innovación Social

2020	2021	2022	GUZTIRA/TOTAL
		10.000,00	10.000,00

Dirulaguntzaren xedea/ Objeto de la subvención:	Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean berrikuntza sozialaren ikuspegitik aldaketa soziala lortzeko konpromisoa hartu duten produktuak, zerbitzuak edo ereduak garatu dituzten ekimen eta proiektu berritzaileak publikoki saritzea eta aitortzea/ Recompensar y reconocer públicamente iniciativas y proyectos innovadores de carácter social, que hayan desarrollado productos, servicios o modelos comprometidos en lograr un cambio social y/o ambiental desde un enfoque de innovación social en el Territorio Histórico de Álava y en el Enclave de Treviño.
Onuraduna/ Beneficiario:	Pertsona fisikoak edo erakundeak, nortasun juridikoa dutenak edo ez, eta egoitza edo egoitza soziala edo egoitza irekia Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean dutenak. Kanpo geratzen dira sektore publikoko erakundeak/ Personas físicas o entidades, con o sin personalidad jurídica, y con residencia o domicilio social o sede abierta en el Territorio Histórico de Álava o en el Enclave de Treviño. Quedan excluidas las entidades pertenecientes al sector público.
Emateko prozedura/ procedimiento de concesión:	Norgehiagoka urteko deialdiaren bidez/ Concurrencia competitiva mediante convocatoria anual.



Dirulaguntzaren oinarritzko lerroak/ Líneas básicas de la subvención:	Lehia-konkurrentziako prozedura, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean gizarte-berrikuntzaren ikuspegitik gizarte-eta/edo ingurumen-aldaketa lortzeko konpromisoa hartu duten produktuak, zerbitzuak edo ereduak garatu dituzten gizarte-izaerako proiektu berritzaileak hautatzeko eta saritzeko/Procedimiento de concurrencia competitiva para seleccionar y premiar proyectos innovadores de carácter social, que hayan desarrollado productos, servicios o modelos comprometidos en lograr un cambio social y/o ambiental desde un enfoque de innovación social en el Territorio Histórico de Álava y en el Enclave de Treviño.
Baterako finantzaketa/ cofinanciación:	
Jarraipen prozedura eta adierazleak/Procedimiento de seguimiento e indicadores:	Eskatutako eskabideen zenbakia/Número de solicitudes presentadas

## II. ERANSKINA

### ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ETA TREBIÑUKO ENKLABEKO GIZARTE BERRIKUNTZAKO SARIAK

Arabako Foru Aldundiaren Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak, zeina Diputatu Nagusiaren Sailari atxikita baitago, gizarte berrikuntzako sarien 2022ko deialdia egin du, honako hauek saritzeko: zerbitzu, produktu eta eredu berrien proiektuak eta ekimenak, gizartearen arazo bati erantzuna emango diotenak edo premia bat gaur egungo alternatibek baino modu eraginkorragoan edo efizienteagoan beteko dutenak, edo gizarte harreman berriak, sinergia berriak eta lankidetzak eredu berriak sortuko dituztenak, gizartearen erronka handiei irtenbidea emateko beharrezkoak diren gizarte portaerak aldatzea sustatzeko.

Sari horien bidez, Diputatu Nagusiaren Sailak bi gauza egin nahi ditu: batetik, jendurrean aitortu ekimen berritzaile horiek Arabako gizartearen ongizaterako egiten duten ekarpena eta, bestetik, katalizatzaile jardun, era horretako proiektuak abian jar daitezen sustatzeko.

Horrela, Arabako Foru Aldundiak berretsi egiten du Araban gizarte berrikuntza bultzatu eta sustatzeko hartuta daukan konpromisoa, Arabako gizarte berrikuntzarako foroaren bideratze eginkizuna bere gain hartzen zuela argi utzi zuen bezala. gizarte berrikuntzarako foro horretan parte hartzen dute Arabako Lurralde Historikoko ekonomia, gizarte eta kulturako eragileek, eta foroaren helburua da Araban elkarren artean lantzea gizarte berrikuntzaren esperientziei buruzko eztabaia, ezagutza eta sozializazioa.

Foro horrek eta sari horiek Araban gizarte berrikuntzaren garapenari lagunduko dion ingurune bat sortzeko egingo dituzten ekarpenek, zeinak osotasunean bere egin baititu zeharka foru erakunde honek, eta beste ekimen eraldatzaile batzuek, hala nola Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako Aliantza 2030 edo Araba Helburu, trakzio palanka izan nahi dute garapen jasangarriarekiko konpromisoa zabaldu eta hedatzeko, gure lurraldean eta planetako gainerako herrialdeetan bizi diren pertsonen ongizatea hobetzeko.

### OINARRIAK

#### Lehenengoa. Xedea

Sarien helburua da jendurrean aintzatestea eta saritzea izaera sozialeko ekimen eta proiektu berritzaileak, hain zuzen, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean gizarte berrikuntzaren ikuspegitik gizarte eta/edo ingurumen aldaketa bat lortzearekin konprometituta dauden produktuak, zerbitzuak edo ereduak garatu dituztenak.

Deialdi hau ekainaren 21eko 26/2022 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera arautuko da. Foru dekretu horrek Diputatu Nagusiaren Departamentuaren sariak emateko oinarri orokorrak onartu zituen.

#### Bigarrena. Sariak eta aintzatespenak

Irabazle aukeratzen den proiektuarentzat izango da lehenengo saria, 5.000 euroz hornitua. Halaber, bigarren eta hirugarren sariak emango dira, 3.000 eta 2.000 eurokoak, hautatutako bigarren eta hirugarren proiektuetarako.

Aurkezten diren gizarte berrikuntzako proiektu guztiei, gainera, aintzatespena eta ikusgai-tasuna emango zaie, sariak emango dituen erakundeak sustatuta. Haiei buruzko informazioa zabalduko da Arabako Foru Aldundiaren web orriaren bidez, aurrez zabalkunde horretarako baimena ematen badute hautagai diren erakundeek.

#### Hirugarrena. Hautagaiak

Sarietara aurkeztu ahal izango dira pertsona fisikoak edo erakundeak, nortasun juridikoa dutenak zein ez dutenak, eta bizilekua, egoitza soziala edo egoitza irekia Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean dutenak. Kanpo geratzen dira sektore publikoko erakundeak.

**Laugarrena. Saria jaso dezaketen ekimenak eta proiektuak**

1. Lurralde mugaketari dagokionez, sarietara aurkeztu ahal izango dira Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean abian jarritako gizarte berrikuntzako proiektuak, beste eskualde batzuetan inpaktu soziala izan duten ala ez kontuan hartu gabe.

2. Helburuari eta emaitzei dagokionez, sarietara aurkeztu ahal izango dira produktuak, zerbitzuak edo ereduak garatu dituzten proiektuak, baldin eta gizarte onurak lortu nahi badituzte eta ideia berritzaileak eta jasangarriak planteatzen badituzte, ekintza eremu bat alda dezaketenak edo gizarte edo ingurumen erronka bat konpontzen lagun dezaketenak eta tokian-tokian eta/edo lurraldean inpaktua izan dezaketenak. Zehazki, ikuspegi berritzaile eta praktikotik honako hauek egingo dituzten proiektuak aurkeztu daitezke sarietara:

– Gizarte/ingurumen arazo zehatz bati erantzuna eman, edo premia bat oraingo alternatibek baino modu eraginkor eta efizienteagoan bete; eta

– Gizarte eta/edo ingurumen aldaketa eraldatzaile bat lortzen saiatu, eragile eta ekimen desberdinen arteko gizarte harreman, sinergia eta lankidetzaren eredu berriak sortzearen bidez, ekintzek gizartean izango duten inpaktua optimizatzeko eta gizarteak gaur egun aurrean dituen erronka handietakoren bat konpontzeko behar diren gizarteko portaera aldaketak sustatzeko.

3. Ekimen edo proiektuen jarduera esparruei dagokionez, gutxienez ardatz hauetako batean sartu beharko dira aurkezten diren lanak:

– Ekolurraldea (jasangarritasuna, energia eta klima aldaketa, lehen sektorea).

– Ekoberrikuntza (enpresa zirkularra, I+G+b, digitalizazioa).

– Herritar parte hartzaileak (gizarte inklusioa eta kohesioa, kultura, euskara, berdintasuna, prestakuntza, talentua, gazteria, zahartzea eta osasuna).

– Partaidetzazko gobernantza (lurralde kohesioa, bizikidetzaren, landa garapena).

Proiektu batek, bere bokazioa hori bada, kategoria batekin edo bat baino gehiagorekin izan ahalko du lotura, betiere kontuan izanik epaimahaia aurkezten den kategoriaren arabera aztertuko duela proposamena.

4. Generoa, berdintasuna eta jasangarritasuna zeharka txertatzeari dagokionez, proiektu guztiek sustatu beharko dute genero berdintasuna, eta saihestu edozein eratako tratatu desberdintasuna eta diskriminazioa. Halaber, proiektuak sendoak eta bideragarriak izan behar dira, eta eskalagarriak, gizartean inpaktu handiagoa lortzeko, eta plan bat izan behar dute epe luzera jasangarritasuna lortzeko.

**Bosgarrena. Hautagaien aurkezpena**

1. Proiektuari eta hautagai den pertsona fisiko edo juridikoari buruzko argibideak. Sarirako hautagaitza aurkeztu ahal izateko, proiektuaren ordezkari den pertsonak eranskinean jasotako formularioa aurkeztu behar du behar bezala beteta eta, harekin batera, argibide hauek:

• Pertsona fisikoaren edo proiektuko erakunde eskatzailea ordezkatzeko duenaren harremanetarako datuak, posta elektronikoa barne.

• Proiektuaren deskribapena:

– Laburpena,

– Zein kategoriari lotuta dagoen,

– Justifikazioa,

– Aurrekariak,

– Helburuak,

– Jarduerak,

– Emaitzak, ebaluazio adierazleen, zeharkako genero adierazleen eta inpaktu adierazleen arabera.

- Proiektuak dakarren berrikuntza, beste egoera batzuetara aldatzeko ahalmena, jasangarritasuna eta etorkizuna, epe ertain eta luzera.

- Proiektua balioesteko garrantzitsuak izan daitezkeen beste argibide batzuk.

Argibide horiekin batera, material gehigarria aurkeztu ahal izango da, ikus-entzunezko euskarrian zein euskarri informatikoan, erakunde edo pertsona hautagaiaren ekintzak erakusteko.

2. Hizkuntza. Eskatutako argibideak zein erantsitako materiala euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkez daitezke.

3. Epea. Eskaerak aurkezteko hamabost egun balioduneko epea egongo da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

4. Hautagaitzak non aurkeztu.

Eskaerak Diputatu Nagusiaren Saileko Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzari zuzendu behar zaizkio, eta "Arabako Gizarte Berrikuntzako Sariak" jarri behako da.

Eskaerak hemen aurkeztu behar dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean.

- Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroan.

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua jasotzen dituen gainerako erregistroetatik edozeinetan.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, aurkezpen telematikoa egin beharko dute, nahitaez, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez (Erregistro Elektroniko Komuna: <https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun>) edo beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikoaren bidez, pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, jarduera horretan egiten dituzten izapideak egiteko elkargoko kide izan beharra eskatzen duen jarduera profesionalean dihardutenek eta administrazioarekin harreman elektronikoak izatera behartuta dauden interesdunen ordezkariak.

### **Seigarrena. Hautaketa irizpideak**

Gizarte berrikuntzako ekimen eta proiektu bakoitza balioesteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Zenbateraino egokitzen zaion deialdiaren xedeari. Zenbateraino betetzen duen gizarte berrikuntzako proiektua izateko betekizuna, gizarte onurak lortu nahi dituen eta ekintza eremu bat alda dezaketen edo gizarte edo ingurumen erronka bat konpontzen lagun dezaketen eta tokian-tokian eta/edo lurraldean inpaktua izan dezaketen ideia berritzaileak eta jasangarriak planteatzen dituenak.

2. Berrikuntza maila. Proposamenak dakartzan berritasuna eta haustura, proiektuaren bereizgarri gisa, lehendik dauden gainerako erantzunei dagokienez. Azterketa, azaltzen duena nola hobetzen, berrasmatzen, osatzen edo eraldatzen dituen gaur egungo irtenbideak, haiek eraldatu eta bidezko, eraginkor, jasangarri eta efizienteago egiteko.

3. Ekimenaren inpaktua. Hauen arteko lotura argia: proiektuak zein gizarte arazori heldu nahi dion, proposatutako jarduerak eta epe motz, ertain eta luzera espero diren emaitzak, proposatutako berrikuntza ekimenetik abiatuz. Proiektuak gizartean duen inpaktua ebaluatuko da, dela hedapenari dagokionez (eraginpeko pertsona kopurua edo kolektiboa/k), dela sakontasunari dagokionez (arazorako irtenbide edo laguntza handia edo txikia).

4. Monitorizazioa eta ebaluazioa. Azaldutako helburuei eta gizarteko premiei lotuta ekimenak izango dituen inpaktuak eta izatea espero diren emaitzak probatzeko erabili diren sistemak eta tresnak.

5. Eskalatze ahalmena. Berrikuntza testuinguru desberdinetara eramateko eta egokitzeko erraztasuna, prozesuen, metodologiaren eta emaitzen sistematizazioari eta dokumentazioari hertsiki lotuta.

6. Jasangarritasuna. Proiektuaren bideragarritasuna, ikuspegi teknikitik, ekonomikitik eta antolakuntzarenetik. Diru sarrerak sortzeko eredia sendotzea, gizartean emaitzak modu jarraituan lortzeko, baldin irabazteko xededun ekimena bada. Taldearen gaitasuna eta esperientzia proiektuaren erronkei aurre egiteko.

7. Garapen jasangarriaren helburuak eta aldagaiak zeharka txertatzea. Prebentzio eta ahalduzko ikuspuntuak eta ikuspuntu holistikoak, epe luzerako mailaz mailako ikuspegiarekin. Genero eta kulturartekotasun ikuspegiak. Gobernantza eta gobernantza partekatu sozialaren maila.

8. Aniztasuna, lankidetzako bazkideen artean eta ekimenean lankidetzan diharduten eta sarean egiten duten lanaren bitartez ekintzen gizarte inpaktua optimizatzen laguntzen duten eragileen artean.

9. Balioetsiko diren beste irizpide batzuk:

- Aurkeztutako dokumentazioaren kalitate teknikoa, argitasuna eta laburtasuna.
- Antzeko proiektuetatik bereizten duten elementu bakar eta berritzaileak identifikatzeko eta komunikatzeko argitasuna eta objektibitatea.
- Gehitutako dokumentazioa, ekimenaren aurrekariak eta erakundeak aurrez lortutako emaitzak jasotzen dituen.
- Teknologien erabilera berritzailea, proiektua nabarmen hobetzeko bitarteko gisa.
- Gizarte berrikuntza sustatzearekin lotura duen beste edozein neurri.

#### **Zazpigarrena. Epaimahaia, epaia eta saridunak jakinaraztea**

1. Izendapena eta osaera. Diputatu nagusiak izendatuko du epaimahai kalifikatzailea, eta Arabako gizarte berrikuntzarako foroko kideek osatuko dute.

Epaimahaiaren osaeran emakume eta gizonen presentzia orekatua izango da, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 20.5. artikuluan xedatutakoa betez.

2. Eskumenak. Epaimahaiaren eskumena izango da hautagaitzak balioestea eta sarien gaineko erabakia hartzea, eta erabaki horren berri emango dio diputatu nagusiari, hark esleipen ebazpena eman dezan eta ALHAOren argitaratu dadin.

3. Epaia emateko, sariak esleitzeko eta jakinarazteko prozedura.

Epaimahaiaren erabakiaren aurka ezin izango da gora jotzeko errekurtoa aurkeztu. Erabakia epaimahaiaren gehiengo soilaz hartuko da, eta epaimahaiak izango du eztabaidetan sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko ahalmena. Sariak eman gabe gelditu daitezke, epaimahaiak hala erabakitzen bada.

Hautatutako pertsona fisiko edo juridikoek hamar egun balioduneko epea izango dute honako baldintza hauen egiaztagiriak aurkezteko:

- Eskatzailearen nortasuna,
- Egoki bada, erakundearen nortasun juridikoa eta ordezkatzeko ahalmena,
- Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean erroldatuta egotea edo egoitza soziala izatea edo egoitza irekita izatea,
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, hori egiaztatetik salbuetsita egon ezean, 18/1997 Foru Dekretuaren arabera.

Baldin aipatutako epean ez bada aurkezten eskatutako dokumentazioa edo ez badira betetzen eskatutako betekizunak, epaimahaiak beste proiektu bat hautatu ahal izango du edo, egoki bada, saria eman gabe utzi.

Deialdi honetako sariak ematea diputatu nagusiaren foru dekretu bidez ebatziko da, epaimahaiaren proposamena ikusirik, zeina arrazoitua izango baita, eta amaiera emango dio administrazio bideari.

Sarituek jasotako sariaren publizitatea egin ahalko dute, baina berariaz adierazi behar dute zein urteri dagokion. Era berean, saria jaso duten pertsonak baimena ematen dute deialdi honi loturiko edozein zabalkunde jardueratan beraiek direla egileak aipatzeko, baina horrek ez die ekarriko inolako eskubide ekonomikorik edo bestelako onurarik, ematen den sariak berekin dakartzan zenbateko ekonomikoaz eta aintzatespenaz bestelakorik.

#### **Zortzigarrena. Deialdi honen publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, bai eta Arabako Foru Aldundiaren web orrian ere, eta ahal dena egingo da hedabide sozialetan zabalkunderik handiena izan dezan.


#### **Bederatzigarrena. Eskumena**

Arabako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Sailak baino ez du deialdi honetan sortzen diren auzi guztiak ebazteko eskumena.

#### **Hamargarrena. Araubide aplikagarria**

Xedatuta ez dagoen guztian, honako hauei jarraituko zaie: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, azaroaren 17koa 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorra, eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretua, bategarria den heinean; Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua; indarrean dagoen aurrekontua betearazteko foru araua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Gizonen eta Emakumeen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoa; Euskal Autonomia Erkidegoko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea; eta aplikatzekoa den gainerako araudia.



 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<b>ERANSKINA</b> <b>ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ETA TREBIÑUKO</b> <b>ENKLABEKO BERRIKUNTZA SOZIALERAKO SARIAK</b> <b>2022</b>
	<b>ANEXO</b> <b>PREMIOS A LA INNOVACIÓN SOCIAL EN EL TERRITORIO</b> <b>HISTÓRICO DE ÁLAVA Y EL ENCLAVE DE TREVIÑO</b>

Diputatu Nagusiaren Saila

Departamento de Diputado General

ERANSKINA ■ ANEXO

Eskaera zk. ■ N° Solicitud

Eskaera data ■ Fecha  
Solicitud(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la  
Administración)ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE <sup>(1)</sup>

Eskatzaileak betetzeko ■ A rellenar por la persona solicitante

Identifikazio zk. (NAN, AIZ, IFZ, besteren  
bat) ■ N° identificativo (DNI, NIE, NIF, otros)

Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre o razón social

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■  
Núm.

Letra

Eskra. ■  
Escal.Solairua ■  
PisoAldea ■  
Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerrria ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■ C.  
P.

Telefonoa ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

 NAN  
DNI AIZ  
NIE Besteren bat  
Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

 Emakumea  
Mujer Gizona  
Hombre

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo  
apellido

Protokolo zk. ■ N° protocolo

Data ■ Fecha

Notarioa ■ Notario


Telefonoa ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Orria ■ Hoja 1/4

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<b>ERANSKINA</b> <b>ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ETA TREBIÑUKO ENKLABEKO BERRIKUNTZA SOZIALERAKO SARIAK</b> <b>2022</b>
	<b>ANEXO</b> <b>PREMIOS A LA INNOVACIÓN SOCIAL EN EL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA Y EL ENCLAVE DE TREVIÑO</b>

Diputatu Nagusiaren Saila

Departamento de Diputado General

ERANSKINA ■ ANEXO

**PROIEKTUA** (Aurkeztutako proiektuaren laburpen laburra. Eskaerarekin batera, proiektua azaltzen duen memoria zabalagoa aurkeztu ahal izango da, bai eta proiektua baloratzeko egoki iritzitako dokumentazio guztia ere.) ■ **PROYECTO** (Breve resumen de proyecto presentado. La solicitud podrá acompañarse de una memoria más amplia explicativa del proyecto y de cuanta documentación se crea oportuna para la valoración del mismo).

--

**JAKINARAZPENAK ■ NOTIFICACIONES**

- **PERTSONA FISIKOENTZAT: Jakinarazpen-sistema hautatzea (adierazi x batez jakinarazpen-modua):**  
**PARA LAS PERSONAS FÍSICAS: Elección del sistema de notificación (indicar con una x la forma de notificación elegida).**

 Correo postal.

<b>Herrialdea ■ País</b>	<b>Probintzia ■ Provincia</b>	<b>Udalerría ■ Municipio</b>	<b>Herria ■ Localidad</b>	<b>P. K. ■ C. P.</b>	
<b>Mugikorra ■ Móvil</b>	<b>Posta elektronikoa ■ Correo electrónico</b>				

**Jakinarazpen elektronikoa (Hartzaileek Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko « nire jakinarazpenak » atalean eskuratu ahal izango dituzte) ■ Notificación electrónica (Las personas destinatarias podrán acceder a ellas en el apartado “Mis notificaciones” de la sede electrónica de la Diputación Foral de Álava).**


<b>Mugikorra ■ Móvil</b>	<b>Posta elektronikoa ■ Correo electrónico</b>

- **PARA LAS PERSONAS JURÍDICAS O ENTIDADES SIN PERSONALIDAD JURÍDICA:**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, jakinarazpen elektronikoak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egingo dira. Hartzaileek egoitza elektroniko horretako "nire jakinarazpenak" atalean eskuratu ahal izango dituzte.

Jakinarazpen elektronikoak eskuratu ahal izango dituzte hartzaileek eta/edo, hala badagokio, haiek gaitutako pertsonak.

Orria ■ Hoja 2/4

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<b>ERANSKINA</b> <b>ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ETA TREBIÑUKO ENKLABEKO BERRIKUNTZA SOZIALERAKO SARIAK</b> <b>2022</b>
	<b>ANEXO</b> <b>PREMIOS A LA INNOVACIÓN SOCIAL EN EL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA Y EL ENCLAVE DE TREVIÑO</b>

Diputatu Nagusiaren Saila

Departamento de Diputado General

ERANSKINA ■ ANEXO

Erakunde eskatzaileak gailu elektronikoko bat eta/edo helbide elektronikoko bat identifikatu ahal izango du, abisuak bidaltzeko balioko duena, egoitza elektronikokoan jakinarazpen bat eskuragarri jarri dela jakinaraziz. Hala ere, ohar hori egiten ez bada ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da:

Conforme a lo previsto en el artículo 43.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las notificaciones electrónicas se practicarán por el sistema de comparecencia en sede electrónica de la Diputación Foral de Álava. Las personas destinatarias podrán acceder a ellas en el apartado "Mis notificaciones" de dicha sede electrónica.

Podrán acceder a las notificaciones electrónicas las personas destinatarias de las mismas y/o, en su caso, las personas habilitadas por ellas.

La entidad solicitante podrá identificar un dispositivo electrónico y/o una dirección de correo electrónico que servirán para el envío de los avisos informándole de la puesta a disposición de una notificación en la sede electrónica. No obstante, la falta de práctica de este aviso no impedirá que la notificación sea considerada plenamente válida:

Mugikorra ■ Móvil	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

## ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN/DECLARACIÓN RESPONSABLE

Deialdian eskatutako baldintzak betetzen ditudala deklaritzen dut, eta, aurkeztutako proiektua saritua izanez gero, baimena ematen diot Diputatu Nagusiaren Sailari ofizioz egiaztatzeko ordezkatzan dudana erakundearen nortasuna eta, hala badagokio, nortasun juridikoa, ordezkaritza-ahalordea, erroldatzea, egoitza soziala edo egoitza irekia, bai eta zerga-betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko ere.

Era berean, baimena ematen diot erakunde emaileari, aurkeztutako gizarte berrikuntzako proiektuaren berri zabaltzeko, erakunde horrek sustatuko dituen aintzatespena eta ikusgarritasuna izan ditzan proiektuak, zeina Arabako Foru Aldundiaren webgunearen bidez zabalduko baitu.

Declaro que cumplo los requisitos exigidos en la convocatoria y, en caso de que el proyecto presentado resulte premiado, autorizo al Departamento de Diputado General a comprobar de oficio el requisito de mi identidad y, en su caso, personalidad jurídica de la entidad a la que represento, poder de representación, empadronamiento, domicilio social o sede abierta, así como a la comprobación del cumplimiento de estar al corriente de las obligaciones tributarias y, en su caso, con la Seguridad Social.

Asimismo, autorizo a la entidad otorgante a la difusión del proyecto de innovación social presentado para disfrutar del reconocimiento y visibilidad que promoverá dicha entidad y que divulgará a través de la página web de la Diputación Foral de Álava.


## ESKATZEN DU/SOLICITA

2022ko Gizarte Berrikuntza Sariaren deialdian parte hartzea./La participación en la convocatoria de Premios a la Innovación Social 2022.

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Ordezkararen sinadura ■ Firma del/la representante

Orria ■ Hoja 3/4

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p><b>ERANSKINA</b></p> <p><b>ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ETA TREBIÑUKO ENKLABEKO BERRIKUNTZA SOZIALERAKO SARIAK</b></p> <p><b>2022</b></p>
	<p><b>ANEXO</b></p> <p><b>PREMIOS A LA INNOVACIÓN SOCIAL EN EL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA Y EL ENCLAVE DE TREVIÑO</b></p>

Diputatu Nagusiaren Saila

Departamento de Diputado General

ERANSKINA ■ ANEXO

**Oharra (1)**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetze aldera, jakinarazten dizugu zuk ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko T70 SUBVENCIONES DEL DIPUTADO GENERAL fitxategian sartuko direla. Fitxategi horren tratamenduak Arabako Lurralde Historikoan euskararen erabilera sustatzeko jarduerak kudeatzeko egiten dira. Zure datuen konfidentziasuna bermatzen dugu, eta ez zaizkie hirugarrenei jakinarazten legez gaitutako kasuetatik kanpo.

Datuak atzitzeko, ezabatzeko, aurkaratzeko eta mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu DBEOk aitortzen dituen eskubideez baliatzeko. Horretarako, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Bulegora jo beharko duzu (Probintzia plaza 5, PK 01001 Vitoria-Gasteiz - Araba). Informazio gehiago nahi izanez gero: <https://web.araba.eus/eu/tratamenduen-lege-ohar-hedatua>

**Nota (1)**

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser incluidos en el fichero T70 SUBVENCIONES DEL DIPUTADO GENERAL titularidad de Diputación Foral de Álava

cuyos tratamientos se realizan para la gestión de las actividades de promoción del uso del euskera en el Territorio Histórico de Álava.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria-Gasteiz (Álava). Para más información: <https://web.araba.eus/es/web/araba/aviso-legal-ampliado>